

## **ASIER ERRASTI EIBARKO XIX. FILM LABURREN JAIALDIA 2018**

Antolatzaileak: **Eibarko Udala** eta **Plano Corto** elkartea.

### **1.- PARTE-HARTZAILEAK**

Parte hartzen dutenek **egindako film laburra 2017ko urtarrilaren 1etik** aurrerakoa izan behar da.

### **2.- ATALAK**

Lehiaketak 2 atal ditu: **fikzioa** eta **animazioa**.

### **3.- IZEN-EMATEA ETA LABURMETRAIAREN IGOERA**

#### **3.1- Izen-ematea:**

Lehiaketan parte hartu nahi duten pertsonak eta elkarteek **formularioa elektronikoki bete beharko dute eta eskaerari ondorengo dokumentuak erantsi:**

- Laburmetraiaren fotograma bat esku-orrirako.
- Laburmetraiaren fitxa teknikoa.

**Izen-ematea elektronikoki (Internet bidez) egin behar da:** [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)

Ez dago mugarik, ez aurkeztutako lan-kopuruan ezta jorratutako gaietan ere.

Lan bakoitzeko eskaera bat egin beharko da.

#### **3.2- Laburmetraiaren igoera:**

Laburmetraia izena ematen den leku berdinetik igoko da. Laburmetraia originala MP4 formatuan jaitsi ahal izan behar da. Laburmetraia igotzeko pausoak honako hauek dira:

1. Laburmetraia igotzeko, leiho berri bat irekiko da non lanaren izenburua eta egilearen izen/abizenak adierazi beharko diren.
2. Laburmetraia aukeratu eta igota, leihoa automatikoki itxiko da eta izen-ematearen orrira bueltatuko da.
3. Pantaila honetan "Artxiboa igo dut" klikatu beharko da eta formularioa betetzen jarraituko da eta beharrezkoa den dokumentazioa eranstean.

Lanak aurkeztu behar dira **euskaraz, gazteleraz edo hizkuntza horietako batean azpigitulaturik**.

Gehienez jota, eta kredituak barne, **20 minutuko** iraupena izango dute lanek.

**2017ko urtarrilaren 1a** baino lehen egindakoak ezin dira aurkeztu.

#### 4.- EGUTEGIA

- **Izen-ematea: 2018ko ekainaren 11tik uztailaren 25era.**
- **ASIER ERRASTI Eibarko XIX. Film Laburren Jaialdia: 2018ko azaroaren 5etik 10era.**
- **Erabakiaren jakinarazpena eta sari-banaketa, 2018ko azaroaren 10ean.**

#### 5.- EPAIMAHAIA

Lehiaketarako bereziki izendatutako epaimahaiak erabakiko du zein lan aurkeztuko diren.

Zalantza bat izanez gero epaimahaiak erabakiko du zer egin; lanak jaialdiaren barruan zein hurrenkeratan erakutsiko diren ere epaimahaiak erabakiko du. Erabaki horiek apelaezinak izango dira.

#### 6.- PROIEKZIOAK

Hautatutako lanak **ASIER ERRASTI Eibarko XIX. Film Laburren Jaialdiaren barruan erakutsiko dira 2018ko azaroaren 5etik 10era, Eibarko Coliseo antzokian.**

#### 7.- SARIAK

Sariak honako hauek izango dira:

- |  |              |
|--|--------------|
| • <b>LEHEN SARIA</b> Javier Aguirresarobe fikzioa    | <b>700 €</b> |
| • <b>BIGARREN SARIA</b> Javier Aguirresarobe fikzioa | <b>500 €</b> |
| • <b>Euskarazko film laburrik onena</b>              | <b>700 €</b> |
| • <b>Animaziozko film laburrik onena</b>             | <b>700 €</b> |
| • <b>Eibarko film laburrik onena</b>                 | <b>200 €</b> |

Sarituak zeintzuk izan diren **2018ko azaroaren 10ean** egingo den **amaierako ekitaldian** jakinaraziko da. **Derrigorrezkoa** izango da **egilea** edo haren ordezkariaren bat bertan **egotea**.

Epaimahaiaren ustez lanek nahikoa kalitaterik ez badute, sariak eman gabe geratuko dira.

#### 8.- OHARRAK

Autoreek aurkezten dituzten lanen **erakus-eskubideak** izan behar dituzte. Beraz, antolatzaileek ez dute beren gain hartuko baldintza hori hausteak ekar liezazkiekeen erantzukizunik.

Lanak **Eibarko Udalean** eta **Plano Corto** elkartean **gordeko** dira, prestakuntzarako eta kulturakanaletan erabiltzeko xedez, baina ez irabazi asmoz.

Parte-hartzaileek lanen **emisio-eskubideak lagatzeko** konpromisoa hartzen dute, Jaialdirako nahiz Eibarko Udalak diru irabazi asmorik gabe antolatutako beste jarduera batzuetarako.

Lanak lehiaketara aurkezteak derrigorrez oinarri hauek onartzea dakar berekin.